

EUSKADIKO ORKESTRA 21-22



+ **Bartok**
Mérah

OTSAILA 10 FEBRERO

19:30

PAMPLONA / IRUÑA
Auditorio BALUARTE Auditoriuma

euskadikoorkestra.eus

EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular
ROBERT TREVIÑO

Musikariak / Las/os músicas/os

KONTZERTINOA CONCERTINO

Liana Gourdjia

I BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)
Xabier de Felipe (3)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
Laura Balboa
Irene Echeveste
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Oscar López
Maite Menéndez
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (3)
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Luxi Lavielle (4)
Kamran Omarli
Ricardo Ruiz
Igor Torre

BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Monika Mazur (3)
Pascal Arnaud
Helline Boulet (4)
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Sergio Montero
Yann Seyrac

BIOLONTXELOAK VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (3)
Natalia Díaz
Jacek Grabe-Zaremba
Jon Larraz
Beatriz Linares
Tetiana Mertelova (4)
Pascale Michaud
Ian Swedlund

KONTRABAXUAK CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Guangyao Zhao (3)
Victor Bogdanov
Noelia Grau (4)
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent

FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)
Hervé Michaud (2)
Rafael Alonso
Pascal Laffont

KLARINETEAK / CLARINETES

Luis Cámara (2)
Juan Navarro (2)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

TRONPAK / TROMPAS

Jean-Luc Casteret (2)
Cristian Palau (2)
Adrián García Carballo
Marcos Garrido (4)
Xabier Sarasa
Salvador Tudela

TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)
Miguel Echepare (2)
Jesús Castillo
Iker Urreta (4)

TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Javier Almarza
Daniel Ruibal (4)

TUBA

Oscar Abella (2)

TINBALAK ETA PERKUSIOA TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi
Xabier Peña

HARPA / ARPA

Iván Bragado (2)

- (1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino
- (2) Bakarlarria / Solista
- (3) Lehen tuttia / Primer tutti
- (4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

10 OTSAILA
FEBRERO

Beethoven + Bartok
Méhrah



Mei-Ann Chen
Zuzendaria ° Directora



Varvara
Pianoa ° Piano



Christina Daletskaya
Sopranoa ° Soprano

EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

JOËL MÉRAH (1969)

Jakinduriaren usaina, for soprano and orchestra [17']

Argitaletxea / Edita: Tabula Compositoria, éditions Musicales

ELKAN

'Elkano: Mundubira musika bidelagun' proiektuaren
baitako enkarguzko obraren estreinaldia /
Estreno de la obra encargo del proyecto 'Elkano:
Mundubira musika bidelagun'

BELA BARTOK (1881-1945)

Concierto para piano y orquesta n°3 [23']

Argitaletxea / Edita: Boosey & Hawkes, Inc.

- I. Allegretto
- II. Adagio religioso
- III. Allegro vivace

II

LUDWIG VAN BEETHOVEN (1770-1827)

Sinfonía n°7 en la mayor, Op.92 [36']

- I. Poco sostenuto - Vivace
- II. Allegretto
- III. Presto
- IV. Allegro con brio

Mei-Ann Chen zuzendari taiwandar-amerikarra lehen aldiz jarriko da Euskadiako Orkestraren buru; izan ere, aditua da musikaria emango digun erreperitorioan: XX. mendeko musika eta musika garaikidea. Estatu Batuetako orkestra garrantzitsuenetako batzuekin maiz egin izan du lan Chenek (Atlanta, Chicago, Houston, etab.), eta oso inplikaturatuta dago bere jaioterriko –Taiwaneko– musika-jarduerarekin; izan ere, Taiwango Orkestra Sinfonikoaren Udako Jaialdia zuzentzen du 2016tik. Alabaina, Chicago Sinfoniettan (horren zuzendaria da 2011az geroztik hona) erregularotasun handiagoz lantzen ditu bai erreperitorio garaikidea bai XX. mendekoa, eta oso kritika onak izan dituzten hainbat diskotan grabatu du musika hori. 2021eko irailaz geroztik, Chen Styriarte jaialdi ospetsuko orkestraren zuzendari titularra ere bada: Grosses Orchester Graz orkestrarena, hain zuzen.

Pandemiaren zeharbidean oztupo asko gainditu ondoren, *Elkano: mundubira musika bidelagun proiektua* munduko bere ibilbideko hirugarren eskalara iritsiko da gaur, Getariako itsasgizonak duela milurteko-erdi egindako balentriaren urratsei jarraituz. *Elkano* proiektuaren lehen obrak –Mikel Chamizoren *Navigare necesse estek*–, bidaia hasi aurreko abentura-irrikari eta ziurgabetasunei erreparatzen zien; bigarrenak –Mikel Urquizarren *Mis monstruos marinos* izenekoak– Elkanoren garaiko elezaharren arabera urruneko itsasoetan bizi ziren fantasiazko izaki haiek piztutako lilura transmititzen zigun; kapitulu berri hau –**Joël Mérahren Jakinduriaren usaina**–, berriz, leku ireki eta zabalek eragiten duten bake-sentimenduak animatzen du. Baionako musikagilearen hitzetan, «Ozeano Barea zeharkatu zutenean Elkanoren eta berarekin zihoozen gizonen buruaz jabetu zen bake haren ideia da nagusi kapitulu honetan; izan ere, Magallaesek jarri zion "Bare" izena ozeanoari, zeharkaldi horretan aurkitu zuten klima lasaia zela-eta». Lasaitasun atezuko sentimendu horrek inspiratuta, Mérahk zera nahi zuen sorkuntza horren bidez, «barneko mundu bat (agian Juan Sebastian Elkanorena) gogora ekartzea, kanpoko mundu epiko baten orde».

Méhrahk poesiara jotzen du ideia hori azpimarratzeko, Joxean Artzeren poesiara, hain zuzen ere; hala, «bidaiaren eta barnekotasun-sentimendua eta nolabaiteko jakinduria-usaina gogorarazten duen poema bat aukeratu du». Poema hau orkestraren barruan kokatutako soprano batek abesten du «filigranan» eta **Christina Daletsk**a ukrainar interprete handiak izango du eginkizun hori estreinaldi honetan. Artzeren testua bertso eder hauekin hasten da: «Dakienak badaki nora dijoan jakiteko behar duela nondik datorren jakin; nondik datorren, nora dijoan jakin, non dagoen jakingo badu; etorri aurretik ikusi zuenaz oroit, joan ondoren hura bera ikusiko bait du».

Bela Bartokek 1940ko urrian utzi zuen Europa nazismoaren aurrerapenaren eraginez, eta bizitzako azken bost urteak Estatu Batuetan eman zituen. Ez zen oso garai zoriontsua izan hungariarrentzat: New Yorken eman zituen lehen bi urteetan ez zuen ezer idatzi, 1942ko apirilean okerrera egin zuen bat-batean bere osasunak eta ez zen inoiz lehengoratu. Halere, enkargu batek sormen-apatiatik atera zuen Bartok: Serge Koussevitzkyk Bostongo Orkestra Sinfonikorako lan bat eskatu zion, eta halaxe sortuko zuen, hain zuzen, *Orkestrarako kontzertu* zoragarria. Lan horren arrakastak pixka bat gehiago konposatzen jarraituzera bultzatu zuen musikagilea: *Biolinerako sonata* delakoaz eta ukrainar abestien bilduma batez gain, 1945ean bi lani ekin zien: batetik, *Biolarako kontzertua*, amaitu gabea, eta bestetik, **Pianorako 3. kontzertua**, bere azken obra osoa. Baliteke azken unean sortzeko izan zuen sukar ia etsia bere gaixotasunaren larritasunak eragin izana, oso ondo baitzekien hiltorian zela. «Ekipajea beteta alde egin behar izatea da dudan damu bakarra», esan zion azken orduetan artatu zuen medikuetakoki bati.

Bartokek bere buruarentzat idatzi zituen pianorako aurreko bi kontzertuak, pianista bikaina baitzen. Hori dela eta, Bartokek musikajole gisa zuen nortasunaren isla ere badira bi obra leherkor eta ziztatzaile horiek. Alabaina, idazkera aldatu egin zuen Bartokek hirugarren lanean, bazekiak ez zuela berak estreinatuko. Ditta Pasztory bere emazte eta pianojoleari eskaini zion urtebetetze-opari gisa. Horregatik, nahiz eta Bartoken bereizgarriak –indarra, umorea eta irudimen instrumentala– gordetzen jarraitu, kontzertu honek joera liriko eta lasaia –obra osoa zeharkatzen duena– ere badu, eta amaiera arraroak bakarrik eteten du joera hori, disonantea eta, aldi berean, arranditsua izanik. Azken konpasean, bide batez, Bartokek hungarierazko *vége* hitza idatzi zuen («amaiera» esan nahi du), obraren bukaerari edo bere bizi-ibilbidearen amaierari erreferentzia anbigua eginez.

Varvara pianista moskutarrak izango du, hain zuzen, Bartoken azken orrialde horri –birtuosismoaren eta sakontasunaren arteko oreka ezin hobea eskatzen duenari– hegoak emateko ardura. Varvarek 2012an egin zuen jauzi nazioartera, Zuricheko Geza Anda lehiaketa irabazi ondoren, eta errepertorioko obra handiak jo izan ditu Inbal, Gergiev, Zinman, Vasary eta beste hainbat zuzendarirekin batera; alabaina, ez ditu maiz jo Bartoken lanak. Euskadiko Orkestrarekin egingo duen debuta, beraz, aukera apropos-aproposa izango da egungo pianojole interesgarrietako batek egile hungariarrari buruz duen ikuspegia ezagutzeko.

Beethovenen musikaren etapez hitz egin ohi dugu beti. Egia da etapa horiek izan zituela Beethovenek eta, oro har, konpositore gisa izan zuen bilakaera ulertzen laguntzen digutela. Baina zehaztasun handiagoko azterketa batek agerian uzten du Beethovenen ekoizpena oso modu konplexuan teilakatzen dela bere buruaren inguruan, urte batzuk gerago testuinguru erabat ezberdinetan berriro azaleratzen diren materialetan zimentatuta, edo justu aurretik sorturikoak baino askoz kontserbatzaileagoak diren sorkuntzekin. **7. Sinfonia** 1811n eta 1812an konposatu zuen, eta halako zerbait gertatzen da obra horretan, bere baitan 1792ko melodia bat agertzen baita. Eta esanguratsua da hori, **7. Sinfonia**, izan ere, egilearen sinfonia aurreratuenetakotzat jotzen baita. *Bosgarren Sinfonian* maisutasun handiz erabili zuen motibo-lana sonata-formaren mugak behartzen hasi zen lan hartan, eta horrenbestez, materialarekin berarekin sorturiko eraikuntza formal espezifikoa baterantz jo zuen. Zergatik gorde ote zuen Beethovenek melodia hori 20 urtez, hain justu, **7. Sinfonian** erabiltzeko? Historiak musikaririk ikasienetako bat izan arren, hil eta ia 200 urtera Beethovenek halako sekretuak gordetzen jarraitzen du.

7. Sinfonia 1813ko abenduaren 8an eta 12an jo zen lehenengo bi aldietan, zehazki, Vienako Unibertsitateko Paraninfoan. Napoleonekin izandako gerra obra horren gibellean dago, Hanauko guduaren ondoren elbarri geratu ziren Austriako eta Bavariako soldaduen aldeko ongintza-kontzertuak baitziren egiatan. Vienako musikari onenek nahi izan zuten bat egin ekitaldi harekin, eta Beethoven, gorreria oso aurreratuta bazuen ere, podiumean izan zen, orkestra bikain batek lagunduta, zeinaren lan bikaina lagungarria izan baitzen kritikak harrera beroa egiteko obrari.

Atariko handi batekin hasten da, egilearen bederatzi sinfonien artean atariko luzeena izanik (izan ere, lehen mugimenduaren gutzitza herena hartzen du) eta botere erritmiko handiko *vivace* batekin amaituta. Wagnerrek esan zuen obra «dantzaren apoteosia» zela eta, hain zuzen ere, erritmo-bulkada da, berez, sinfoniaren diskurtsua sortzen duen elementuetako bat, intentsitate izugarria hartzen baitu, hain handia, ezen erritmoaren estilazioa –etapa klasikoaren adierazgarri– apurtzen baitu. Horrek harrিতa utzi zituen hainbat konpositore, hala nola Carl Maria von Weber, zeinak hau adierazi zuen: «Sinfonia honekin, Beethovenek ospitale psikiatrikorako prest dagoela adierazi du». Walther Krug-ek, bestalde, Beethoveni buruzko bere testu kritikoa klasikoan, honako hau iritzi zuen: «moderazio eta neurririk gabea; eldarnio hutsa, non apenas geratzen baita *melos*aren eta harmoniaren, soinuen eta hautemangarritasunaren arrastorik». Baina moderazio falta horregatik lilurutzen gaitu, hain zuzen, sorkuntza itzel honek betidanik.

Beethoven + Bartok Méhrah

La energía de la pianista Varvara
en el más popular Bartok.

La directora taiwanesa-americana **Mei-Ann Chen** debuta hoy con Euskadiko Orkestra con un repertorio del que es toda una especialista: la música del siglo XX y contemporánea. Colaboradora habitual de algunas de las más importantes orquestas estadounidenses (Atlanta, Chicago, Houston...), Chen está muy implicada con la actividad musical en su Taiwán natal, donde dirige el Festival de Verano de la Orquesta Sinfónica de Taiwán desde 2016. Pero es en su papel de directora de la Chicago Sinfonietta, que lidera desde 2011, donde trabaja con mayor regularidad el repertorio contemporáneo y del siglo XX, que ha grabado en varios discos muy bien recibidos por la crítica. Desde septiembre del 2021, Chen suma a sus cargos el de directora titular de la orquesta residente del prestigioso festival Styriarte: la Grosses Orchester Graz.

Tras sortear no pocos escollos en su travesía a través de la pandemia, el proyecto *Elkano: mundubira musika bidelagun* llega hoy a la tercera escala de su recorrido musical alrededor del mundo, siguiendo los pasos de la hazaña que hace medio milenio realizó el marino de Getaria. Si la primera obra del proyecto Elkano, *Navigare necesse est* de Mikel Chamizo, se detenía en la voluntad de aventura e inseguridades previas al inicio del viaje, y la segunda, *Mis monstruos marinos* de Mikel Urquiza, se dejaba fascinar por las leyendas y seres fantásticos que habitaban los mares lejanos en la época de Elkano, este nuevo capítulo, *Jakinduriaren usaina* de Joël Méhrah, está animada por el sentimiento de paz que se nutre de los amplios espacios abiertos. Según el compositor de Baiona, "una idea de paz como la que inundó la mente de Elkano y de los hombres que lo acompañaban cuando cruzaron el océano Pacífico, que debe su nombre a Magallanes, quien lo bautizó 'Pacífico' por el clima tranquilo que encontraron durante esta travesía". Inspirado por tal sentimiento de calma tensa, el deseo de Méhrah con esta creación es "evocar un mundo interior (quizás el de Juan Sebastián Elkano) más que un mundo exterior y épico".

Méhrah acude a la poesía para subrayar esta idea, concretamente a la de Joxean Artze, de quien ha elegido un poema que evoca el "sentimiento de viaje e interioridad, cierto olor a sabiduría". Este poema es cantado "en filigrana" por una soprano colocada en el interior de la orquesta, papel que en este estreno desempeñará la gran intérprete ucraniana **Christina Daletska**. El texto de Artze comienza con estos hermosos versos: "Quien sabe, sabe que para saber a dónde va debe saber de dónde viene; de dónde viene, a dónde va, para saber dónde está; recordar lo que vio antes de venir, porque verá lo mismo cuando se haya ido".

Bela Bartok, que abandonó Europa en octubre de 1940 ante la progresión del nazismo, pasó los últimos cinco años de su vida en los Estados Unidos. No fue una época muy feliz para el húngaro: durante sus dos primeros años en Nueva York no escribió nada y en abril de 1942 su salud empeoró repentinamente y nunca se recuperaría. Hubo, no obstante, un encargo que le sacó de la apatía creativa: el que le hizo Serge Koussevitzky para la Orquesta Sinfónica de Boston, del que surgiría el maravilloso *Concierto para orquesta*. Su éxito le animó a seguir componiendo un poco más: además de la *Sonata para violín solo* y una colección de canciones ucranianas, en 1945 comenzó a trabajar en el *Concierto para viola*, que no llegó a terminar, y el *Concierto para piano nº3*, su última obra completa. Es probable que esta actividad casi desesperada fuese motivada por la gravedad de su enfermedad, de la que era muy consciente. "Solo lamento tener que irme con el equipaje lleno", le dijo a uno de los médicos que le atendieron en sus últimas horas.

Bartok había escrito los dos conciertos para piano anteriores para él mismo, ya que era un excelente pianista. Aquellas obras, por consiguiente, reflejan su propia personalidad como intérprete y son explosivos e incisivos. Pero con el tercero la escritura del solista cambia, ya que Bartok sabía que no lo estrenaría él. Se lo ofreció a su esposa, la también pianista Ditta Pasztory, como regalo de cumpleaños. Por eso, y aunque siga albergando la fuerza, el

humor y la imaginación instrumental que son características de Bartok, este concierto posee también una vena lírica y serena que recorre la totalidad de la obra y que se rompe solo por el extraño final, entre disonante y triunfal. En el último compás, por cierto, Bartok escribe la palabra húngara vége (el final), en una ambigua referencia a la conclusión de la obra o al final de su propia trayectoria vital.

La pianista moscovita **Varvara** se encargará de dar alas a esta página final de Bartok, que requiere un perfecto equilibrio entre virtuosismo y profundidad. Varvara, que saltó a la palestra internacional en 2012 tras ganar el Concurso Geza Anda de Zúrich, ha tocado las grandes obras del repertorio junto a directores como Inbal, Gergiev, Zinman o Vasary, pero no se ha prodigado demasiado con las obras de Bartok. Su debut con Euskadiko Orkestra será, por tanto, una ocasión idónea para descubrir la visión que tiene del autor húngaro una de las pianistas más interesantes de la actualidad.

Hablamos siempre de etapas en la música de **Beethoven**. Efectivamente, las hay y ayudan a comprender, a grandes rasgos, su evolución como compositor. Pero un estudio más detallado revela que la producción beethoveniana se imbrica en torno a ella misma de forma harto compleja, sobre la base de materiales que reaparecen años más tarde en contextos totalmente diferentes, o con creaciones que son mucho más conservadoras que sus inmediatamente predecesoras. En la **Sinfonía nº7**, compuesta entre 1811 y 1812, se da algo parecido, ya que en su seno aparece un tema de 1792. Es significativo porque la *Sinfonía nº7* está considerada una de sus sinfonías más avanzadas, en la que el tipo de trabajo motivico que ya empleó magistralmente en la *Quinta* empieza a forzar los límites de la forma de sonata para tender hacia una construcción formal específica, generada a partir del propio material. ¿Por qué guardaría Beethoven esa melodía durante 20 años para emplearla, justamente, en la *Sinfonía nº7*? A pesar de ser uno de los músicos más estudiados de la historia, casi 200 años después de su muerte Beethoven sigue guardando secretos como este.

Las dos primeras interpretaciones de la *Sinfonía nº7* tuvieron lugar el 8 y 12 de diciembre de 1813 en el Paraninfo de la Universidad de Viena. La guerra con Napoleón está presente en su trasfondo, pues se trataba de conciertos de beneficencia en favor de los soldados austríacos y bávaros inválidos tras la batalla de Hanau. Todos los mejores músicos de Viena quisieron adherirse al acto y Beethoven, en el podio a pesar de su sordera muy avanzada, contó con una orquesta magnífica cuya brillante ejecución ayudó a la cálida acogida que la crítica brindó a la sinfonía.

Comienza esta con una gran introducción, la más larga entre las nueve sinfonías, que ocupa un tercio del total del primer movimiento y que desemboca en un *Vivace* de gran poderío rítmico. Wagner bautizó la obra como "apoteosis de la danza" y, efectivamente, el impulso rítmico es, *per se*, uno de los elementos generadores del discurso de la sinfonía, pues adquiere una visceralidad que rompe con la estilización del ritmo que es característica del periodo clásico. Esto dejó perplejo a compositores como Carl Maria von Weber, que afirmó que "con esta sinfonía, Beethoven declara estar listo para el hospital psiquiátrico". O Walther Krug, quien, en su clásico texto crítico sobre Beethoven, encuentra la *Sinfonía nº7* "inmoderadamente desenfadada; un delirio en el que apenas queda huella del 'melos' y de la armonía, del sonido y de la perceptibilidad". Pero es esa falta de moderación, precisamente, la que tanto ha fascinado y sigue fascinándonos de esta creación inmensa.

Mikel Chamizo

**HURRENGO ABONU
KONTZERTUA**
PRÓXIMO CONCIERTO
DE ABONO

OTSAILA 22 FEBRERO
19:30

**Berns
tein**
+ Zhou



SARRERAK / ENTRADAS

10€ < 35€

- euskadikoorkestra.eus
- baluarte.com
- Taquilla Baluarte leihatila

**AZKEN
ORDU
GAZTEA!**
10€



EUSKADIKO
ORKESTRA

21-22

